

2015eko ABENDUAREN 21eko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

Herriko Kontseilua Herriko Etxean bildu da, Vincent BRU Jauna lehendakari, 2015eko abenduaren 21ean, astelehenez, 20 :00etan.

Hor ziren : Vincent Bru jauna, Auzapeza, Bernadette Jougleux anderea, Christian Devèze jauna, Eliane Noblia anderea, Frédéric Bardin jauna, Pascale Lespade anderea, Eliane Aizpuru anderea, Henri Saint-Jean jauna, auzapezordeak, Anne-Marie Pontacq anderea, Vincent Goytino jauna, Christiane Despériés anderea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard anderea, Jean-Jacques Lassus jauna, Jean-Noël Magis jauna, Corinne Othatceguy anderea, Peio Etchelecu jauna, Maryannick Hirigoyen anderea, Roger Barbier jauna, Pascal Bourguet jauna, Véronique Larronde anderea, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Pantxo Michelena jauna, herri kontseilariak.

Ezin edo ez etorriak : Didier Irastorza jauna, auzapezordeak, Argitxu Hirigoyen anderea, Carmen Gonzalez anderea, Camille Jenvrin jauna, herri kontseilariak.

Ahalordeak : Didier Irastorza jaunak Eliane Aizpuru andereari, Argitxu Hirigoyen andereak Vincent Goytino jaunari, Carmen Gonzalez andereak Pascal Bourguet jaunari, Camille Jenvrin jaunak Bernadette Jougleux andereari.

1 – Saioko idazkariaren izendatzea.

Presente diren kideek **aho batez** Corinne Othatceguy anderea izendatzen dute saiorako idazkari.

2 –Iragan saioaren aktaren onspena.

Auzapezak herri Kontseilarietara galdegiten die ea 2015eko azaroaren 30eko bilkuraren aktaz oharrik ba ote duten. Ez baita oharrik egin, aurreko saioaren akta aho batez onartua da.

3 –Lurralde kontratua : emendakina.

Auzapezak oroitarazten du lurralde kontratu hau dispositibo berria dela, Kontseilu Nagusiko gehiengo ohiak ezarria 2013-2016 urteetarako. 200 milioi euro bideratu ziren herri elkargoz eta hirigunez osaturiko lurralde kontratu hauetara. Errobi herri elkargoari dagokionez, 8 259 447 € euro ziren herri, sindikata (bereziki URA – uraren kudeaketa eta ontzea), zaharren egoitza eta etxebizitza lagunduen artean banatzeko. Kanboko herriarentzat 805 086 € proposatu ziren. Kopuru hau ez zen lurralde zuzkiduraren heinekoa, baizik eta %13,40ez emendatu zuzkidura baten heinekoa. Izan ere, lehengo exekutibaren iritziz, talde batzuek, hala nola etxebizitza lagunduen kudeatzaileek, ezingo zituzten beren proiektuak aurrera eraman, eta ondorioz lurralde batzuei zuzkidura % 13,40ez gaitzetzeko baimena eman

zitzaien. Aurreko exekutibak onartu zituen proiektuek 9 363 341,84 €ko kostua zuten. Errobiren kasuan gaintitzea %13,40ekoa izan zen. Gaurko exekutibak aurrekoak onartu kopuruak onartu ditu, inolako emendatzerik gabe. Honela, Kanbori zegokion diru kopurua (805 086 €) 709 952,38 €ra ttipitua izan da (- %13,40). Alabaina, proiektu batzuk bertan behera gelditu edo gibelatuak izan dira (Basusarrin eta Uztaritzen besteak beste). Horregatik, Kanbori dagokion 709 952,38 €ko zuzkidura 752 401,00 €ra handitu da. Lurralde kontratuaren diru kopuruak 2016ko urte hondarra aintzin erabili behar ziren, baina exekutiba berriak 2017ko irailera atzeratu du epea.

Kanbon bi proiektu kenduak izan dira: merkatuarentzako teilatupea, lanak finkatu epeetan ezin baitira egin, eta Elizaren obrak. Eliza monumentu historikoen zerrendan sartu zeno lurralde kontratuan sar zitekeen, alabaina, berriki Monumentu Historiko sailkatua izan da, eta Monumentu Historiko sailkatuek ezin dezakete laguntza hori jaso. Ordea, proiektu berri batzuk gehitu ditugu: Vincent Goytino-k eta bere batzordeko kideek eskaturik herriko eraikinen isolamendu termikoa, camping-car-entzako harrera eta zerbitzugune bat.

Auzapezak, ohartarazten du Errobiko lurraldean Kanbok eta Luhusok %25eko ehunekoak dituztela, besteek aldiz %20. Herri erdiko proiektuak Kanbon eta Uztaritzen baizik ez dira; ehunekoak %5ez emendatua da, beraz orotara %30. Camping-car-entzako harrera eta zerbitzuguneak, baita agorespace eta skate park baten sortzeak ere %30 dute.

Tennis zelai baten estaltzeko proiektua atzeratua izan da. Izan ere, Tennis Club-eko Didier Irastorza eta Pascale Lespade ordezkariekin egin bilkura batean hauek zelai bakar bat estaltzea nahikoa ez zela adierazi digute, eta ekintza atzeratzea nahiago dutela bi zelai estaltzeko, jakinik gastua handiagoa izanen dela.

Hiriart-Urruty andereak taulan agertzen den «PVC»ren erran nahia zoin den eskatzen du.

Auzapezak herriko bideetarako laguntza dela erantzuten dio. Laguntza horren kalkulatzeko herriko errepideen luzera kontutan hartzen da. Portzentaia %55ekoa da, hots 33 457 € urteko.

Auzapezak herri Kontseiluari emendakin hau onestea eta izenpetzeko baimena ematea eskatzen dio.

Aho batez onartua.

4 –Lur funtsei buruzko informazio trukaketa hitzarmena.

Auzapezak honakoa aurkezten du:

Ipar Euskal Herriko LFEP-k (EPFL Pays Basque) lekuko erabakitzaileen arteko txostenak arrazionalizatzea proposatzen du, bereziki herriko etxeekin. Funtzen Informazio Sistema (FIS/SIF) bat ezartzea proposatzen du Ipar Euskal Herri osoko funtsei buruzko informazioak eroldatzeko eta bereziki eskuz aldatzeen historikoa eta Alienatzeko Asmoen Aitorpena (AAA/DIA). Biak geo lokalizatuak izango lirateke.

Horregatik Ipar Euskal Herriko LFEP herri elkargo guziengana joan da plataforma horren sortzeko hitzarmena proposatzera, finean informazio guziak hortara igorriak izan daitezzen.

Ipar Euskal Herriko LFEPk herriari hitzarmen hirukideduna izenpetzea proposatzen dio LFEP, Errobi herri elkargoa eta Kanboko herriaren artean, non herriak AAAk jaso bezain laster ezarriko dituen FIS plataforman. Hitzarmenak LFEP, Herri elkargoa eta kide diren herrien arteko datuen trukaketa modalitateak eta kudeaketa prozedurak zehaztea du xede. Errobi herri elkargoak jadanik onartua du hitzarmen hau.

Auzapezak zehazten du, software-aren hornidura, mantenua eta telefono bidezko laguntza LFEPk duela osoki bere gain hartzen, eta herriari ez zaiola deus kostatzen.

Auzapezak herri Kontseiluari, Ipar Euskal Herriko LFEP eta Errobi herri elkargoarekin funtsei buruzko informazio trukaketa hitzarmena izenpetzeko baimena ematea eskatzen dio.

Aho batez onartua.

5 – Camping-car zerbitzugunea : Estatuari laguntza eskatzea erreserba parlamentarioaren baitan.

Auzapezak bere lankideei oroitarazten die, herriko kontseiluak 2015eko azaroaren 30eko delibero batean Moulienian lan eremuan bi lur sail erostea erabaki zuela camping-car-entzako gune bat egiteko. IDEIA ikerketa bulegoari eman zaio proiektua lantzeko ardura.

Departamenduko Kontseiluak diru laguntza eman du lan horien egiteko, lurralde kontratuaren baitan.

Auzapezak herriko Kontseiluari proposatzen dio Estatuaren laguntza eskatzea erreserba parlamentarioaren baitan, jakinez camping-car-entzako zerbitzu gunearen aurrekontua 368 300 € ZKkoa dela.

Aho batez onartua.

6 – Inbertsio gastuetarako diru kredituak aldeztatik baliatzea.

Devèze jaunak, finantzarako auzapezordea, jakitera ematen du herriak 2015eko bigarren seihilean inbertsio programa zenbait bideratu dituela, eta hortik datozela 2016 hasierako kontratu eta finantza engaiamenduak. Alabaina, 2016ko diru engaiamenduak ezin dira gauzatu, kontularitzaren ikuspegitik, inbertsio kredituak 2016ko aurrekontuan idekiak izan ez diren artean.

Beraz, 2016ko aurrekontu nagusian eta ur ontzearenean bozkatuko diren kopuruak jakin gabe zeintzuk izanen diren, eta lan taldeek lanak egiteko gisan 2016ko aurrekontua bozkatu artean, hauxe proposatzen diogu herriko Kontseiluari :

- iragan urteko aurrekontu nagusiko eta ur ontzerako aurrekontuko kredituen laurdenerainoko inbertsio gastuak gauzatzeko, zorraren kitatzeko kredituak izan ezik, lurralde kolektibitateen Kode orokorraren arabera,

- Araudien arabera, 2015eko aurrekontuaren kredituen %25eko kredituak idekitzea, 2016ko aurrekontu nagusia eta ur ontzerako aurrekontua bozkatu artean.

Herriko aurrekontu nagusiaren kredituen kopuruak:

Atalak		2015eko ANko kredituak	2015eko ANko %25
20	Immobilizazio gorputzgabeak (PLU, AVAP)	144 000	36 000
21	Immobilizazio gorpuzdunak (lurrak, materialak)	283 900	70 975
23	Bidean diren immobilizazioak (eraikinak, bideak)	2 261 562	565 390
OROTARA		2 689 462	672 365

Ur ontzerako aurrekontuko kredituen kopuruak:

Atala		2015eko ANko kredituak	2015eko ANko %25
23	Bidean diren immobilizazioak (sareen gaineko lanak)	1 097 474	274 368
OROTARA		1 097 474	274 368

Auzapezak zehazten du hilobien aurrekontu eranskina ez dela agertzen, inbertsio atalik ez duelako.

Aho batez onartuak.

7 – Langileak : enplegu sortzeak.

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak zehazten du, lan postuen bilakaera eta hauen betebeharrak kontutan hartzeko, herriko Kontseiluari honako postuak sortzea proposatzen dio:

➤ 2016ko urtarrilaren 1.etik goiti :

- 1. mailako administrazio laguntzaile baten denbora osoko lan postu iraunkor bat

➤ 2016ko uztailaren 1.etik goiti :

- 1. mailako administrazio laguntzaile baten denbora osoko lan postu iraunkor bat
- 2. mailako laguntzaile tekniko nagusiko denbora osoko bi postu iraunkor
- 2. mailako laguntzaile tekniko nagusiko denbora ez osoko bi postu iraunkor
- 1. mailako kirol hezitzaile nagusi baten denbora osoko lan postu iraunkor bat

➤ 2016ko urriaren 1.etik goiti :

- 1. mailako laguntzaile tekniko nagusiko denbora osoko lan postu iraunkor bat
- 2. mailako laguntzaile tekniko nagusiko denbora osoko lan postu iraunkor bat

Pérez jaunak zehazten du gradu goratzeak direla, eta ez hozka goratzeak, eta azken hauentzako deliberorik behar ez dela

Devèze jaunak zehazten du langile hauek gaur betetzen dituzten lan postuak, mailaz aldatzerakoan, deuseztatuak izanen direla.

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak gehitzen du lan postu hauek heldu den apirileko administrazio batzorde parekidearen ondotik deuseztatuko direla.

Auzapezak zehazten du langileen taula eguneratua izanen dela..

Hiriart-Urruty anderak galdetzen du ea kirol hezitzailearen denbora osoko postua gaur egun existitzen den.

Auzapezak erantzuten dio, postu hori Nicolas Le Bars-ek betetzen duela. Bera aintzin Jean-Michel Hériveau-k zuen postu hori, gazte enplegu batekin hasi ondotik. Nicolas Le Bars-i proposatu zaio administrazio sailera pasatzea, baina kirol sailean segitzea nahiago du.

Auzapezak bozketara ematen du.

Aho batez onartua.

8 – Auzapezaren deliberoen komunikazioa.

Lurralde kolektibitateen kode orokorraren L. 2122-22 eta L. 2122-23 artikulua araberara, eta 2014ko apirilaren 7ko herriko Kontseiluaren deliberoaren arabera, honako komunikazio egiten da.

1º) 2015eko azaroaren 21etik abenduaren 11erako hiriko erosteko lehentasunari buruzko ezezko erabakiak :

- Lurrak : 0
- Etxeak : 4
- Apartamenduak : 1

2º) 2015eko azaroaren 21etik abenduaren 10erako hilerrietako kontzesio berreskuratzeko eta emateko erabakiak :

- 15 urteko kontzesio erostea : 0
- 30 urteko kontzesio erostea (+ hilobiak) : 0
- 30 urteko kontzesio erostea (+ columbariumak) : 0
- 15 urteko kontzesio arraberritzea : 0
- 30 urteko kontzesio arraberritzea (hilobiak) : 0
- Dohainikako lurren berreskuratzeak : 0

15 – Beste galderak.

Auzapezak honako informazioak ematen ditu:

- ✓ Urte berriko ekitaldia : 2016ko urtarrilaren 3an igandez goizeko 11etan egin da eta herri kontseilari bakoitzak gomita bi hizkuntzetan jaso du.
- ✓ Elizaren sailkatzea : Saint Laurent eliza monumentu historiko bezala sailkatzeko ministeritzaren ebazpena Parisen hartua izan da 2015eko irailaren 21ean eta herriko etxera iritsi zitzaigun 2015eko abenduaren 8an. Ebazpenaren 1. artikulua hala dio : « Monumentu historiko sailkatu izan da, bere osotasunean, Kanboko (Pirinio Atlantikoak) Saint Laurent eliza, kanpoko hegoaldeko eskailera eta eraikinari gehitu zaion ataria 4a 53 ca azalera duen 145 zenbakiko lur sailean kokatua dena, Kanbo herriko katastroko BA sekzioan ».

Auzapezak zehazten du orain herriko monumentu historiko dituela : Arnaga eremua bere osotasunean, baita eraikin pribatu bat ere eta Arnagako errotaren kanpoaldea soilik, eta Saint Laurent eliza.

- ✓ Bakardatz jaunak dio, herriko aldikariaz, joan den urriaren 14ko batzordearen bilkuran errana izan zela aldizkarian, merkatarien hamabostaldiaren kariatara, Kanboko merkatarien sustapena eginen zela, merkatarien batasunak antolatzen duenaren ondoan urraspide interesgarria izan zitekeena. Harridura adierazten du orri bat ere ez baitzaio eman eta arrazoinak zoin diren galdetzen du.

Lassus jaunak ihardesten dio epe kontu izan dela eta argitaratzea behar baino hamar egun berantago egin dela. Informazioa dataren ondotik iritsi omen da.

Bakardatz jaunak ohartarazten du oraingoan beranta ezin zaiola oposizioari egotzi, bere artikulua azaro erdirako helarazi baitzuen.

Auzapezak gehitzen du beranta gehiengoak inprimatzailearekin egin dituen negoziaketan ondorioa izan dela.

Lassus jaunak zehazten du inprimatzea burutua dela eta banaketa abenduaren 22an hasiko dela eta 24ean bukatuko.

Bakardatz jaunak eskatzen du heldu den aldizkarian merkatariak, herrian dinamika bat ematen baitute, leku bat izan dezaten.

Auzapezak gehitzen du hortarako ematen diola herriko merkatarien Batasunari diru laguntza bat. Aurreko urtean herriko banderolak eskaini zituen. Gehiengoak Kanboko merkatariak sostengatzen ditu eta Patrice Dor erregularki ari da lan horretan.

Michelena jaunak eskatzen du heldu den herriko aldizkarian ortografia hobeki zaintzea, ezen hainbat falta ikusi baititu bereziki Auzapezaren hitzan. Errepublikaren hizkuntza errespetatzeko modu bat litaik.

Auzapeza adeitsu agertzen da hitz horiekin eta gainbegirada bat eginen dela hitz ematen du faltak saihesteko.

Saioa bukatu aintzin, Auzapezak urte hondarreko besta onak opa dizkie guziei eta euskararentzako departamenduko ordezkaria deno, euskaraz gehitu du : « eguberri on eta urte berri on deneri ».

Auzapezak 20 :50etan itxi du saioa.